JUNTAS GENERALES DE ALAVA

ARABAKO BILTZAR NAGUSIAK

**SUPLEMENTO**
al Boletín Oficial del Territorio Histórico de Álava

**GEHIGARRIA**
Araba Lurralde Historikoaren Aldizkari Ofiziala

**2010eko urtarrilaren 8a, ostirala** ZENBAKIA **2** NÚMERO **Viernes, 8 de enero de 2010**

## ARABAKO BILTZAR NAGUSIAK

**7657**

**Arabako Foru Aldundiaren jakinarazpenarekin lotuta egindako erabaki proposamenak: "Araban energia berriztagarriak sustatu eta garatzeko estrategia eta ekintza plana (2010-2020). Mugarri Plana".**

Arabako Biltzar Nagusiek 2009ko urriaren 19an egindako Osoko Bilkuran ondorengo erabaki proposamen hauek onetsi zituzten:

Arabako Foru Aldundiaren jakinarazpenarekin lotuta egindako erabaki proposamenak: "Araban energia berriztagarriak sustatu eta garatzeko estrategia eta ekintza plana (2010-2020). Mugarri Plana"

1. Erabaki proposamena

Lehenengo paragrafoari gehitzeko.

Estrategia honek iradokitzen duen ikuspegia Europako energia helburuetan laguntzea da. Horiek Europako Parlamentuak eta Kontseiluak 2009ko apirilaren 23an iturri berriztagarrietatik datorren energiaren sustapenari buruz xedatutako 2009/28/EE Zuzentarauan eta aplikatu beharreko gainerako zuzentarauetan jasota daude, honakoa sustatzeko:….

2. Erabaki proposamena

8. Ikuspegia eta helburuak 2020

Lehenengo paragrafoa. "Erabat" hitza ezabatzea.

3. Erabaki proposamena

Idatz-zati bat gehitzea. 8.0 Erakunde arteko koordinazioa

Arabako Foru Aldundiak, ezarritako eskumen banaketaren arabera, estuki eta koordinatuki lan egingo du Eusko Jaurlaritzaren sailekin eta EEErekin, Araban energia berriztagarrien ezarpena arautzeko, energia berriztagarrien arloan I+G+b industria bultzatzeko eta gure lurraldean instalatzea sustatzeko, baita energia aurrezteko politiken arloan lagundu eta horiek hobetzeko eta energia ikuskapenak gauzatzeko ere.

## JUNTAS GENERALES DE ÁLAVA

**7657**

**Propuestas de resolución en relación con la Comunicación de la Diputación Foral de Álava: "Estrategia y plan de acción para la promoción y desarrollo de las energías renovables de Álava 2010-2020. Plan Mugarri".**

Las Juntas Generales de Álava en su Sesión Plenaria celebrada el día 19 de octubre de 2009, aprobaron las siguientes propuestas de resolución:

Propuestas de resolución en relación con la Comunicación de la Diputación Foral de Álava: "Estrategia y plan de acción para la promoción y desarrollo de las energías renovables de Álava 2010-2020. Plan Mugarri"

Propuesta de resolución 1

Adición al primer párrafo.

La visión que inspira esta estrategia no es otra que la de contribuir a los objetivos energéticos europeos, recogidos en la Directiva Europea 2009/28/CE del Parlamento Europeo y el Consejo, de 23 de abril de 2009, relativa al fomento del uso de la energía procedente de fuentes renovables, y de las demás directivas que resulten de aplicación, que promueva….

Propuesta de resolución 2

8. visión y objetivos 2020

Primer párrafo. Eliminar la palabra "plenamente".

Propuesta de resolución 3

Adición de un apartado 8.0 Coordinación interinstitucional

La Diputación Foral de Álava trabajará estrechamente y coordinadamente, de acuerdo con el reparto competencial establecido, con los diferentes departamentos del Gobierno Vasco y el EVE para regular la implantación de energías renovables en Álava, para potenciar la industria de I+D+i en materia de energías renovables y su instalación en nuestro territorio, así como para mejorar y colaborar en políticas de ahorro energético y en la realización de auditorías energéticas.

4. Erabaki proposamena

8.2. idatz-zatiari gehitzeko.. 5. paragrafoan honakoa gehitzea proposatzen da: "…ekoizpena helburu nagusi duela; pelletaren produkzioa; Araban lastoaren errekuntzan oinarrituta energia sortzeko lantegi bat eraikitzeko aukera, izan ere, une honetan nekazariei eta ingurumenari arazo larriak eragiten dizkie, eta ekoizpen arabarraren soberakina bere gain hartzea, district heating deritzen berogailu txikietan beroa sortzea…"

5. Erabaki proposamena

8.2. idatz-zatiari gehitzeko. Taularen ondoren ondorengo paragrafoa gehitzea proposatzen da: "Energia berriztagarriak instalatzeko helburu kuantitatiboak Plana indarrean dagoen bitartean berrikusi ahalko dira aurrerapen teknologikoen arabera komenigarria denean edo Euskadiren Energia Estrategiaren berrikuspena ikusirik beharrezkoa denean".

6. Erabaki proposamena

8.4. idatz-zatian bigarren paragrafo hau gehitzea.

Arabako enpresa sarearen energia eraginkortasuna hobetzen nahiz energiaren alorreko I+G+b-rekin lotutako enpresa berriak ezartzen laguntzeko, Arabako Foru Aldundiak Eusko Jaurlaritzaren Industria eta Berrikuntza Sailarekin estuki lan egingo du, eta politika erakargarrien bidez, oraindik heldu gabe dauden energia berriztagarrien inguruko ikerketak eta energia berriztagarrien instalazioen eragina murrizten duten mekanismoen inguruko ikerketak erraztuko ditu.

7. Erabaki proposamena

9.1. puntuan 0.JI sortzea.

Arabako Foru Aldundiak eta Eusko Jaurlaritzak lan egingo dute eta koordinatu egingo dira energia berriztagarriak ezartzeko eta Europako zuzentarauetan eta Mugarri Plan honetan aurrez ikusitakoaren bidez dagoeneko araututa daudenak Autonomia Estatutuko 10.11 artikuluaren arabera Eusko Jaurlaritzak energia ekoiztu eta banatzeko dauzkan eskuduntzak kontuan hartuz berrikusteko.

Halaber, Arabako Foru Aldundiak koordinatuki egingo du lan EEErekin erakunde horri dagokion jarduera esparruaren barruan dauden arlo guztietan, eta zehazki, energia aurreko politiketan eta energia ikuskapenak egiteko lanean.

8. Erabaki proposamena

E1.4 idatz-zatia aldatzea.

EEErekin lankidetzan, Arabako Foru Aldundiaren Ingurumen Sailak herritarrei bere web orriaren bidez laguntza eskainiko die, baita EEEren informazioa ere dagoeneko existitzen diren eraikinetako eguzki energia instalazioei buruz.

Arabako Foru Aldundiak udalei, egokitzat jotzen badute, Eraikuntzaren Kode Teknikoak xedatutakoak baino eskakizun tekniko anbiziotsuagoak ezartzen dituzten ordenantzak aplikatzeko beharrezkoa den informazioa emango diete.

9. Erabaki proposamena

E2.2 idatz-zatiko lehen eta bigarren paragrafoak aldatzea.

...Biomasan oinarritutako Landa Barrutiko Berogailu-sareak Ezartzeko Programa bat egingo da. Programa hori Arabako Foru Aldundiak landu eta sustatuko du EEErekin eta baliabideen jabeekin lankidetzan eta haiekin koordinatuta.

Programa horren helburua honakoa izango da:

10. Erabaki proposamena

2.JI. "Energia ekoizpenean biomasaren erabilera sustatzea" idatz-zatiari gehitzeko. Azpi idatz-zati bat sortzeko proposamena. E.2.6 "Nekazaritza eta abeltzaintzako hondakinen plana".

Arabako Foru Aldundiak Mugarri Plana indarrean dagoen lehenengo urtean nekazaritza eta abeltzaintzako hondakinen Plan bat landuko du. Plan horrek jarduera horien ondorioz ekoiztutako biomasa erabiltzeko aukerak aztertu eta kontuan hartuko ditu eta ondorengo alderdi hauei arreta berezia eskainiko die:

- Minden tratamendua eta Araban lantegi bat eraikitzeko aukera.

Propuesta de resolución 4

De adición al apartado 8.2.. Se propone añadir en el 5º párrafo lo siguiente: "…con la producción eléctrica como principal objetivo; la producción de pellets, la posibilidad de construcción de una planta de generación energética en Álava a partir de la combustión de la paja, que ahora mismo está generando un grave problema a los agricultores y al medio ambiente, y que asuma el excedente de la producción alavesa, la generación de calor en pequeñas calefacciones de distrito…"

Propuesta de resolución 5

De adición al apartado 8.2 Se propone la adición de un párrafo después del cuadro del siguiente tenor: "Los objetivos cuantitativos de instalación de energías renovables podrán ser revisados durante la vigencia del Plan cuando los avances tecnológicos así lo aconsejen o cuando sea necesario a la vista de la revisión de la Estrategia energética de Euskadi."

Propuesta de resolución 6

Adición de un segundo párrafo en el apartado 8.4.

Para ayudar al desarrollo del tejido empresarial alavés, tanto en la mejora de su eficiencia energética, como en la implantación de nuevas empresas relacionadas con la I+D+i en materia de energía, la Diputación Foral de Álava trabajará estrechamente con el Departamento de Industria e Innovación del Gobierno Vasco, facilitando con políticas atractivas la investigación de energías renovables aún no maduras y la investigación en mecanismos que minoren el impacto de las instalaciones de energías renovables.

Propuesta de resolución 7

Creación en el punto 9.1 de la L.A.0

La Diputación Foral de Álava y el Gobierno Vasco trabajarán y se coordinarán para regular la implantación de energías renovables y revisar las ya reguladas siguiendo las directivas europeas y lo previsto en este Plan Mugarri, teniendo en cuenta las competencias del Gobierno Vasco en materia de producción y distribución de energía de acuerdo con el artículo 10.11 del Estatuto de Autonomía.

Asimismo la Diputación Foral de Álava trabajará de forma coordinada con el EVE en todas aquellas materias que entren dentro del ámbito de la actividad del referido ente, y específicamente en políticas de ahorro energético y en la realización de auditorías energéticas.

Propuesta de resolución 8

Modificación del apartado A1.4

En colaboración con el EVE, desde el Departamento de Medio Ambiente de la Diputación Foral de Álava, se ofrecerá a los ciudadanos, a través de su página web, las ayudas e información del EVE en relación con instalaciones de energía solar en edificios privados ya existentes.

Desde la Diputación Foral de Álava se proporcionará la información necesaria a los ayuntamientos para que puedan poner en práctica, si lo estiman oportuno, ordenanzas que establezcan requerimientos técnicos más ambiciosos que los establecidos por el Código Técnico de la Edificación.

Propuesta de resolución 9

Modificación del primer y segundo párrafo del apartado A2.2

…Programa de Implantación de Calefacciones de Distrito Rurales a partir de biomasa. Este programa se articulará e impulsará desde la Diputación Foral de Álava en colaboración y coordinación con el EVE y los propietarios de los recursos.

El objeto de este programa será:

Propuesta de resolución 10

De adición al apartado 9.1 LA.2 "Fomento del uso de la biomasa en la producción de energía". Se propone la creación de un subapartado, el A2.6 "Plan de residuos agrícolas y ganaderos".

La Diputación Foral de Álava elaborará en el primer año de vigencia del Plan Mugarri, un Plan de residuos agrícolas y ganaderos que analice y contemple las posibilidades de utilización de la biomasa generada como residuo por estas actividades, prestando especial atención:

- Al tratamiento de los purines y la posibilidad de construcción de una planta en Álava

- Lastoa, eta Araban lastoa errez energia eratzeko gai den eta beste xede batzuetarako erabili ez den soberakina bere gain hartzeko den lantegi bat eraikitzeko aukera.

11. Erabaki proposamena

3.JI. idatz-zatiaren izenburua aldatzea.

3.JI. Parke eolikoak instalatzea: minieolikoa bultzatzea.

12. Erabaki proposamena

3.JI. idatz-zatiko lehenengo paragrafoari gehitzeko.

Araban, garapen aukera gehien duen energia berriztagarria energia eolikoa da baita 2020rako energia berriztagarritik datorren energiaren kontsumoa % 20 areagotzea lortzeko helburua erdiesteko aukera gehien duena ere.

13. Erabaki proposamena

E3.1 idatz-zatiko azken paragrafoa ezabatzea.

14. Erabaki proposamena

E4.1 ekintzako paragrafoa aldatzea.

Eusko Jaurlaritzarekin lankidetzan, Euskal Herrian 1983an egindako hasierako Azterketa Geotermikoaren irizpide teknikoak eguneratzea, zehaztasunez ebaluatzeko…

15. Erabaki proposamena

9.4 idatz-zatia aldatzea

Programa honen helburua Eusko Jaurlaritzaren Industria sailarekin batera lan eginez, Araban teknologia berriztagarriko industria ezartzea eta horrelako energien arloko munduko merkatuan tokia hartzea ahalbidetzea da. Horretarako, ondorengo esparru hauetan eragingo da:

16. Erabaki proposamena

12.JI. idatz-zatiko lehen paragrafoa aldatzea.

"Eta Arabako ezaugarrietara ongien egokitzen direnei" ezabatzea.

17. Erabaki proposamena

Arabako Foru Aldundiak, Eusko Jaurlaritzarekin lankidetzan, energia berriztagarriak instalatzeko, erabiltzeko, kudeatzeko, horien inguruko mantentze-lanak gauzatzeko… langileak kontratatzea eta etengabe birziklatzea errazteko lanbide zikloan ezarriko ditu eta EHUrekin lankidetzan arituko da, bereziki, Arabako ingeniaritza eskolarekin, energia elektriko berriztagarri eta iraunkorraren sorreran adituak diren ingeniariak prestatzeko.

18. Erabaki proposamena

Arabako Foru Aldundiak, udalekin eta EEErekin lankidetzan, 500 biztanle baino gutxiagoko toki erakundeetan energia berriztagarriko zentroak instalatzea bultzatzeko bideragarritasun tekniko eta ekonomikoa aztertuko ditu.

19. Erabaki proposamena

9.7 idatz-zatian Ogasun Saila jarraipen batzordean nahiz proiektu bulegoan sartzea.

20. Erabaki proposamena

9.7 idatz-zatia gehitzea

Araban energia berriztagarrien ezarpenaren eta elektrizitate kontsumoaren jarraipena nahiz energia aurrezteko politikena Aldundiaren Batzordearen aurrean agerraldiak gauzatuz egingo da eta agerraldia urtero urteko lehenengo hiruhilekoan egingo da.

Zentzu horretan, Arabako Foru Aldundiak Arabako Biltzar Nagusiei informazio eta jarraipeneko urteko txostenak bidaliko dizkie horien hurrengo urteko lehenengo hiruhilekoan eta 2014ko azken hiruhilekoan Planaren Bitarteko Ebaluazio txostena bidaliko die.

21. Erabaki proposamena

9,7. idatz-zatiari gehitzeko. Hirugarren idatz-zatia, 9.7.3. zenbakikoa, sortzea proposatzen da eta ondorengo izenburua eta edukia izango lituzke:

9.7.3."Plana beste erakunde batzuei bidaltzea"

"Mugarri Plana eta Arabako Biltzar Nagusiek onetsitako erabaki proposamenak Eusko Legebiltzarrera eta Eusko Jaurlaritzara bidaliko dira, baita 2010ean egin behar den Euskadiko Energia Estrategiaren berrikuspenerako Arabaren ekarpena ere, eta Arabarentzat Planeko 5. idatz-zatian jasotako irizpideak errespetatzea garrantzitsua dela adieraziko da".

- Y a la paja y la posible construcción de una planta de generación energética en Álava a partir de su combustión que sea capaz de asumir el excedente no usado en otros fines.

Propuesta de resolución 11

Modificación título LA.3

LA.3 Instalación de parques eólicos: impulso de la minieólica.

Propuesta de resolución 12

Adición al primer párrafo del apartado LA.3

En Álava, la energía renovable con mayor potencial de desarrollo es la energía eólica y para alcanzar los objetivos de aumento del 20% del consumo de energía que provenga de energías renovables para el 2020, es necesaria su instalación en Álava.

Propuesta de resolución 13

Eliminación del último párrafo del apartado A3.1

Propuesta de resolución 14

Modificación del párrafo de la acción A4.1

En colaboración con el Gobierno Vasco, actualizar con criterios técnicos el Estudio Geotérmico preliminar del País Vasco realizado en 1983 para evaluar en detalle…

Propuesta de resolución 15

Modificación al apartado 9.4

Este programa está enfocado a promover, en estrecha colaboración con el Departamento de Industria del Gobierno Vasco, una industria de tecnologías renovables que se pueda situar en Álava y que se pueda posicionar en el emergente mercado global de este tipo de energías. Para ello, se incidirá en los siguientes ámbitos:

Propuesta de resolución 16

Propuesta de resolución de modificación al primer párrafo del apartado LA.12

Suprimir "y adaptados a las características alavesas"

Propuesta de resolución 17

La Diputación Foral de Álava en coordinación con el Gobierno Vasco diseñará un itinerario curricular que dé lugar a la implantación de ciclos formativos para facilitar la contratación de personal en la instalación, mantenimiento, manejo, gestión… de las diferentes energías renovables y su reciclaje continuos y colaborará con la UPV, especialmente con la escuela de ingeniería de Álava, para la formación de ingenieros/as especializados/as en la generación de energía eléctrica renovable y sostenible.

Propuesta de resolución 18

La Diputación Foral de Álava, en colaboración con los ayuntamientos y el EVE estudiará la viabilidad técnica y económica de apoyar la instalación de centros de energía renovable en las entidades locales de menos de 500 habitantes.

Propuesta de resolución 19

Introducir en el apartado 9.7 tanto en el comité de seguimiento, como en la oficina de proyecto al Departamento de Hacienda.

Propuesta de resolución 20

Adición de un apartado 9.7

El seguimiento de la implantación de las energías renovables en Álava y del consumo eléctrico, así como de las políticas de ahorro energético, se realizará a través de la comparecencia en Comisión de la Diputación, en el primer trimestre de cada año.

En este sentido la Diputación Foral de Álava remitirá los informes anuales de información y seguimiento a las Juntas Generales de Álava durante el primer trimestre del año siguiente al que se refieran los citados informes, asimismo, remitirá el último trimestre del año 2014 el informe de evaluación intermedia del Plan.

Propuesta de resolución 21

De adición al apartado 9.7. Se propone la creación de un apartado tercero, el 9.7.3 con el siguiente título y contenido.

9.7.3."Remisión del Plan a otras instituciones"

"El Plan Mugarri junto con las propuestas de resolución aprobadas por las Juntas Generales de Álava serán remitidas al Parlamento Vasco y al Gobierno Vasco, como la aportación alavesa a la revisión de la Estrategia Energética Vasca que ha de producirse en el año 2010, poniendo de manifiesto la importancia del respeto para Álava de los criterios contenidos en el Apartado 5 del Plan"

ALHAOren zenbaki horretan bertan separata bat argitaratu da "Araban Energia Berriztagarriak Sustatu eta Garatzeko Estrategia eta Ekintza Plana (2010-2020). Mugarri Plana"rekin, eta ebazpen proposamen gisa onetsitako aldaketak sartu dira horrekin batera

Vitoria-Gasteiz, 2009ko urriaren 19a.– Lehendakaria, JUAN ANTONIO ZÁRATE PÉREZ DE ARRILUCEA.

En este mismo número del BOTHA se publica una separata con la "Estrategia y plan de acción para la promoción y desarrollo de las energías renovables de Álava 2010-2020. Plan Mugarri", al que se le han incorporado las modificaciones aprobadas como propuestas de resolución.

Vitoria-Gasteiz, 19 de octubre de 2009.– El Presidente, JUAN ANTONIO ZÁRATE PÉREZ DE ARRILUCEA.